



**OIARTZUNGO ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.2 KAUSUA MENDIKO 138
UNADAREN ZATI BATEAN ETA 2.063.3 MARTUZENEGI MENDIKO 142, 143
ETA 144 UNADEN ZATITAN DAUDEN EGURREN USTIAKETA ESLEITZEKO
LEHIAKETA**

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA -

ESPEDIENTE KODEA:	2025ON180001
--------------------------	--------------

KARATULA

1.- XEDEA:

Lehiaketaren xedea da Oiartzungo Onura Publikoa duten 2.063.2 Kausua mendiko 138 unadaren zati batean eta 2.063.3 Martuzenegi mendiko 142, 143 eta 144 unaden zatitan dauden egurren ustiaketa esleitzea, bi lotetan banatuta:

1. Lotea: Oiartzungo Onura Publikoa duen 2.063.2 Kausua mendiko 138 unadaren zati bateko egur ustiaketa.
2. Lotea: Oiartzungo Onura Publikoa duen 2.063.3 Martuzenegi mendiko 142, 143 eta 144 unaden zatitako egurren ustiaketa.

Esleipendunek egur horien erabateko mozketa gauzatu beharko dute, Baldintza Teknikoen Agirian jasotzen denarekin adostasunean.

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:

Irekia.

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:

Ohiko izapidetza.

4.- OINARRIZKO AURREKONTUA ETA PREZIOA:

Oinarrizko aurrekontua, guztira, 63.000 eurokoa da, % 21eko BEZa barne, honela banatuta:

1. Lotea: 28.000 euro, % 21eko BEZa barne
2. Lotea: 35.000 euro, % 21eko BEZa barne

Parte hartzaileek beren eskaintzetan prezio horiek hobetu ahal izango dituzte, ezarritako kopuruetatik gorako eskaintzak eginez eta bestelako kopuru zehatz eta finko batzuk proposatuz. Eskaintzaren bat ezarritako kopuruetatik beherakoa baldin bada, zuzenean baztertua izango da.

Parte hartzaileek egiten dituzten proposamenetan sartuta daudela ulertuko da, ondorio guztietarako, kontrataren prezioak ez ezik, baita kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, aplikagarria den tipoa eta zenbatekoa adieraziz.



5.- FINANTZAKETA:

Lehiaketa honetatik eratorritako kontratuak ez du Oiartzungo Udalarentzat gasturik aurreikusten, esleipendunek ez baitute Oiartzungo Udaletik kopururik jasoko.

6.- EXEKUZIO EPEA:

Oiartzungo Onura Publikoa duen 2.063.2 Kausua mendiko 138 unadaren zati batean erabateko egur mozketak, hau da, 1. Loteari dagokionak, bukatuta egon beharko du **2026ko martxoaren 31rako**, eta 2.063.3 Martuzenegi mendiko 142, 143 eta 144 unaden zatitan erabateko egur mozketak, 2. Loteari dagokionak, bukatuta egon beharko du **2026ko martxoaren 27rako**.

7.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:

20 egun natural, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

8.- LEHIAKETAREN PUBLIZITATEA:

Lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baita Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean ere (www.oiartzun.eus), Euskadiko Kontratazio-Plataforman dagoena.

9.- ALDAERAK:

Ez dira onartzen.

10.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

1. LOTEA: IRIZPIDE AUTOMATIKOAK.....100 PUNTU

Eskaintza ekonomikoa (100 puntu gehienez)

Parte hartzaile bakoitzak egindako **eskaintza ekonomikoa** baloratuko da. Ezarritako prezioa -28.000 euro (BEZa barne)- berdintzen duenari 0 puntu emango zaizkio, eta eskaintza ekonomikorik altuena egiten duenari 100 puntu. Gainerako eskaintzak honako formularen arabera baloratuko dira:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{P_b}{P_o} \times 100$$

Pb= Balioesteko eskaintza ekonomikoa

Po= Preziorik altueneko eskaintza

Eskaintzaren bat ezarritako kopurutik beherakoa baldin bada, zuzenean baztertua izango da.

Halaber, parte hartzaileek egiten dituzten proposamenetan sartuta daudela ulertuko da, ondorio guztietarako, kontrataren prezioak ez ezik, baita kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, aplikagarria den tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

2. LOTEA: IRIZPIDE AUTOMATIKOAK.....100 PUNTU

Eskaintza ekonomikoa (100 puntu gehienez)

Parte hartzaile bakoitzak egindako **eskaintza ekonomikoa** baloratuko da. Ezarritako prezioa -35.000 euro (BEZa barne)- berdintzen duenari 0 puntu emango zaizkio, eta eskaintza ekonomikorik altuena egiten duenari 100 puntu. Gainerako eskaintzak honako formularen arabera baloratuko dira:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{P_b}{P_o} \times 100$$

P_b= Balioesteko eskaintza ekonomikoa

P_o= Preziorik altueneko eskaintza

Eskaintzaren bat ezarritako kopurutik beherakoa baldin bada, zuzenean baztertua izango da.

Halaber, parte hartzaileek egiten dituzten proposamenetan sartuta daudela ulertuko da, ondorio guztietarako, kontrataren prezioak ez ezik, baita kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, aplikagarria den tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

I. PROZEDURAREN NONDIK NORAKOAK

1. ESLEIPEN PROZEDURA

1.- Oiartzungo Onura Publikoa duten 2.063.2 Kausua mendiko 138 unadaren zati batean eta 2.063.3 Martuzenegi mendiko 142, 143 eta 144 unaden zatitan dauden egurren ustiaketa esleitzeko lehiaketa prozedura irekiaren bidez egingo da, eta ohiko izapidetzea jarraituz.

2.- Esleipena egiterakoan, karatularen 10. atalean lote bakoitzerako zehaztutako irizpideak hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko.

3.- Lote bakoitzaren esleipendun suertatzen den parte hartzaileak egindako eskaintza, bere osotasunean, kontratuaren edukira sartuko da, eta agiri honekiko hobekuntza suposatzen duen guztia, nahitaez bete beharrekoa izango da.

2. PARTE HARTZEKO GAITASUNA

1.- Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta SPKLren 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez baldin badaude.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez aurkeztu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariak, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariak ere aplikatuko zaizkie.

2.- Parte hartzaileek, halaber, ezingo dute ordaindu gabeko zorrik eduki Oiartzungo Udalean premiamendu bidean.

3.- Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, elkarrearen ordezkari edo apoderatu ahalduen bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

Era berean, pertsona batek baino gehiagok batera egindako proposamenak aurkeztu daitezke, beti ere pertsona horiek Oiartzungo Udalarekiko solidarioki behartzen baldin badira agiri honetako baldintzei dagokienez, haren aurrean izan ditzaketen eskubideak eta betebeharrak zatiezintzat hartuta.

4.- Parte hartzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake lote bakoitzerako. Gainera,

proposamen bat bakarka aurkeztu duen parte hartzaileak ezingo du beste enpresa edo pertsona batzuekin elkartuta proposamenik aurkeztu edo elkarte horietako bat baino gehiagotan azaldu. Parte hartzailearen batek baldintza horiek betetzen ez baditu, ez da onartuko hark sinatutako proposamenik.

5.- Proposamena aurkeztearekin parte hartzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko agirietako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela parte hartzeko ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak. Era berean, proposamena aurkeztearekin parte hartzaileak mahaiari eta kontratazio organoari Lizitatzzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko baimena ematen dio.

3. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Lehiaketa honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazioa, Oiartzungo Udalean (Done Eztebe plaza 1) aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, argitaratzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Orobat, agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke kontratatzailearen profilaren bidez, www.oiartzun.eus helbidean.

Epea: parte hartzaileek beraien proposamenak lehiaketaren iragarkia **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik** kontatzen hasita **HOGEI (20) EGUN NATURALEKO** epean aurkeztu beharko dituzte.

2.- Proposamenak Oiartzungo Udalaren Herriarren Arreta Zerbitzuaren bulegoan aurkeztu ahal izango dira aurrez aurre, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, baita elektronikoki ere, Oiartzungo Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez ([Oiartzungo Egoitza elektronikoa \(gipuzkoa.eus\)](http://OiartzungoEgoitza_elektronikoa(gipuzkoa.eus))).

3.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira hurrengo klausulan adierazitako argibideak, bertan adierazten baita artxibo bakoitzean jaso beharreko dokumentu-edukia, lote bakoitzerako.

4.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira. Horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

4. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak jarraian adierazten diren **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARRETAN** edo **KARTAZAL ITXIETAN** aurkeztuko dituzte parte hartzaileek edo parte hartzaileen ordezkari diharduten pertsonak, lote bakoitzean.

2.- **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARRAK** edo **KARTAZAL ITXIAK**
“OIARTZUNGO ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.2 KAUSUA MENDIKO 138

**UNADAREN ZATI BATEAN ETA 2.063.3 MARTUZENEGI MENDIKO 142, 143
ETA 144 UNADEN ZATITAN DAUDEN EGURREN USTIAKETA ESLEITZEKO
LEHIAKETA. GAITASUNAREN EGIAZTAGIRIAK ETA PROPOSAMENA**” titulua
izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Ardurapeko adierazpena**, agiri honen **I. Eranskin**eko ereduaren arabera.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute parte hartzaileek, ardurapeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Parte hartzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua epe horretan behar bezala aurkeztu ezean, ulertuko da parte hartzaileak kendu egin duela bere proposamena.

** Enpresa edo pertsona batek baino gehiagok batera parte hartzen badute lehiaketa honetan, enpresa edo pertsona horietako bakoitzak bere ardurapeko adierazpena aurkeztuko du, agiri honen I. Eranskineko ereduaren arabera.*

Enpresen kasuan, gainera, parte hartu behar duten enpresariak aldi baterako enpresa elkarte SPKLren 69. artikularen 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxieneko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da. Konpromiso hori hartzeko idatzkia elkarte eratzten duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkarte formalki eratzeko konpromisoa.

Pertsonen kasuan, lehiaketatik sortutako betebeharrak betetzeko eta eskubideak gauzatzeko ahalorde askietsia izango duen ordezkari edo ahalduz bakarrik izendatzen duen notario ahalorde bat aurkeztu beharko dute. Bertan parte hartzaile guztiek Oiarzongo Udaren aurrean duten erantzukizun solidarioa zehaztuko da.

*** Atzerriko parte hartzaileek gaitasuna egiaztatzeko adierazitako dokumentuak euskarara edo gaztelera itzuliak aurkeztu beharko dituzte. Horrez gain, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrean edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena aurkeztu beharko dute, zeinetan egiaztatuko den, bere legeriaren arabera, kontratatze eta behartze gaitasuna dutela.*

Era berean, enkantetik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

- Lote bakoitzerako edo nahi duen loterako **eskaintza ekonomikoa**, agiri honen **II. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

** Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, ezarritako balioa gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen parte hartzailearen esanetan, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.*

*** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den eskaintza ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.*

**** Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarritzko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira gutzizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak*

5. LEHIAKETA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio mahai iraunkorraren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egitera.

2.- Kontratazio mahaiak Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe plaza 1) irekiko ditu artxibo elektroniko bakarrak edo kartazal itxiak, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hori bai gerta litezkeen aldaketak Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira (www.oiartzun.eus). Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitizat.

Egintza horretan, lehenik, kontratazio mahaiak artxibo edo kartazal horretan aurkeztutako dokumentuak eta agiriak kalifikatuko ditu.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak hala eskatuta, parte hartzaileek ardurapeko adierazpena zuzendu beharko dute, zuzentzeko moduko akatsen bat antzemanaz gero. Halako kasuetan, eragindako parte hartzaileari 3 eguneko epea emango zaio, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Ez baldin bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio organoak edo mahaiak ulertuko du parte hartzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Dena den, aurkeztutako agiriek funtsezko akatsak edo zuzendu ezineko akats materialak edukiko balituzte, edo bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen ez badituzte, proposamena baztertu egingo da.

Ondoren, baldintza agirietan ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuta, halakorik bada, onartutako eskaintzen proposamenak irekiko ditu mahaiak eta ebaluatu eta sailkatu egingo ditu, karatularen 10. atalean lote bakoitzerako ezarritako esleipen irizpideen arabera.

4.- Bukatzeko, lote bakoitzaren esleipen proposamena egingo dio mahaiak kontratazio organoari, puntuaziorik onena lortzen duten parte hartzailearen alde, hau da, eskaintza ekonomikorik altuena egiten duenaren alde.

5.- Edonola ere, kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu parte hartzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak ebaluatzeko beharrezkoak direla iritzitako txosten teknikoak eta juridikoak.

6. ESLEIPENA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena

Eskaintzak ebaluatu eta sailkatutakoan, kontratazio mahaiak kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, lote bakoitzari dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta puntuaziorik onena duen eskaintza bereizita.

Esleipen proposamenak ez du administrazioarekiko eskubiderik sortuko proposatutako esleipendunaren alde.

2.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen parte hartzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren aurkezpena.

Esleipen proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio lote bakoitzean eskaintzarik onena aurkeztu duen parte hartzaileari, zeina lehena izango den sailkapen hurrenkeran, 10 egun baliouduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Parte hartzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Parte hartzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.
- Parte hartzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den

dokumentuaren bitartez.

- b) Proposamenaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsonek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).
- c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.
- d) Enpresen kasuan, ekonomia jardueren gaineko zerga: ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzaila salbuetsita egongo da, bertan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik. Inskripzio horretan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da parte hartzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, aurrekontuaren % 3ari dagokion zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio zehapen modura, eta dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberrako hurrengo parte hartzaileari.

3.- Esleipena

Aipatutako dokumentazioa aurkeztuta, kontratazio organoak lote bakoitzari dagokion kontratua esleitu du.

Esleipenak arrazoitua izan behar du, parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus). Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLaren 153.3. artikulua arabera, zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

Kontratua aldi baterako enpresen elkarte bati esleitzen baldin bazaio, elkarte horrek bere eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan eta elkarte horri emandako IFZ-rekin, kontratua formalizatzeko emandako epean.



7. LOTE BAKOITZAREN FORMALIZAZIOA

- 1.- Lote bakoitzeko kontratuak formalizazioaren bidez indar juridikoa hartuko du.
- 2.- Kontratuen formalizazioa esleipenaren jakinarazpena parte hartzaileei bidali eta ondorengo 15 egun balioduneko epean egingo da.
- 3.- Dena den, kontratuak formalizatu baino lehen, esleipendunek esleipen prezioaren zenbateko osoaren ordainketa osatu beharko dute.
- 4.- Kontratuak formalizatu ondoren, Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratuko dira.

II. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

8.- KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Lote bakoitzeko kontratistak, kontratuaren baitako ustiaketa lanak gauzatzen hasi aurretik, lizentzia lortu beharko du, Gipuzkoako mendiei buruzko 7/2006 Foru Arauaren 51. artikulua araberak. Horretarako, tasak ordaindu izanaren egiaztageria aurkeztu beharko du.

Lizentzia Mendiak eta Habitataz kudeatzeko Zerbitzuak luzatuko dio egurzaleari hiru egiaztageri hauek bildu ondoren:

- Esleipendunak Udalaren aurrean baldintza ekonomikoak betetzea. Hau Oñartzungo Udalak jakinaraziko dio Mendiak eta Habitataz Kudeatzeko Zerbitzuari.
- Udalaren hobekuntza-kontuaren zenbatekoa ordaintzea. Hau Oñartzungo Udalak jakinaraziko dio Mendiak eta Habitataz Kudeatzeko Zerbitzuari.
- Tasak ordaintzea. Hau esleipendunak berak jakinaraziko dio Mendiak eta Habitataz Kudeatzeko Zerbitzuari.

Kontratistak ezingo ditu lanak hasi aipatutako lizentzia eskuratu baino lehen.

2.- Kontratistek kontratua lote bakoitzerako finkatuta dagoen epearen barruan gauzatu behar dute.

3.- Kontratua gauzatzerakoan, kontratistek kontratuan ezarritako klausulak eta baldintza agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako baldintza eta xehetasun tekniko guztiak errespetatu eta bete behar dituzte, eta hitzartutako prestazioa behar bezala eta egoki gauzatu behar dute.

4.- Kontratistak izango dira egiten dituzten lanen erantzuleak, baita kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiak edo ondorio okerrekin ekar ditzaketen ondorioen erantzuleak ere.

III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

9. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Baldintza agiri honen arabera egingo diren kontratuek izaera pribatua izango dute. Hala ere, kontratuen prestaketari eta esleipenari buruzko erabakiak egintza juridiko banangarriak dira eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratuak izan daitezke.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratuen prestaketa eta esleipena arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri hau eta honi atxikitako gainerako agiriak.
- Lehiaketa eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratuetoako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.
Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua; Toki Erakundearen Ondasunei buruzko legeri espezifiko (Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua); Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen legeria, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Toki Erakundeei aplikagarri den guztian, eta Lege horren Erregelamendu Orokorra onartzen duen abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretua; Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL), eta arauzko xedapen gisa SPKL partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, aurrekoekiko kontraesanean ez dagoen guztian indarrean dagoena (HAKLEO).
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

2.- Kontratuen ondorioei, aldaketari eta iraungitzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

3.- Agiri hau euskaraz idatzia izan da eta gaztelaniara itzulia. Ondorioz, bi bertsioen artean desadostasunik badago, euskarazkoa lehenetsiko da.

10. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- Kontratuen prestaketari eta esleipenari lotutako edozein arazori dagokionez, bide administratiboan jarri ahal izango da errekurtsua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Era berean, kontratua, prestakuntza eta esleipenari dagokionez, epaitegi kontentzioso-administratiboari dagokio.



2.- Ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, berriz, aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko arauen bidez erregulatuko dira kontratuak, eta epaitegi zibila izango da eskuduna.

11. KOMUNIKABIDEAK

Jakinarazpenak eta komunikazioak proposamen bakoitzeko ardurapeko adierazpenean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio, eta jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko da ardurapeko adierazpenean zehaztutako helbide elektronikora.

Proposamenak elektronikoki aurkezten diren kasuetan, edota parte hartzaileek proposamena aurrez aurre aurkeztuta ere hala adierazten dutenean, SPKLren 140.1.a).4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatu izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

I. ERANSKINA
ARDURAPEKO ADIERAZPENA

“.....jaunak/andreak, NA.....
zenbakia duenak, helbidea, telefono zk.
..... (fax zk.:; posta elektronikoa:),
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean
(edo.....-(r)en izenean, IFK/NA....., hiria
....., helbidea:....., etab.),
OIARTZUNGO ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.2 KAUSUA MENDIKO 138
UNADAREN ZATI BATEAN ETA 2.063.3 MARTUZENEGI MENDIKO 142, 143
ETA 144 UNADEN ZATITAN DAUDEN EGURREN USTIAKETA ESLEITZEKO
LEHIAKETA arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Parte hartzaileak badauzkala lehiaketaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasunak eta baliabideak.

II.- Sinatzaileak proposamena aurkezten duenaren izenean jarduten duela, jarduera egiteko behar besteko baimenak dituela, eta sinatzailea eta ordeztutakoa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikulua aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

III.- Zerga eta Gizarte Segurantzaren obligazioak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen duela, horrela eskatzen bazaio.

IV.- Ez duela ordaindu gabeko zorrik Oiartzungo Udalean premiamendu bidean.

V.- Aurrekoen gain, parte hartzeko eta administrazioarekin kontratatzeko lege ezarritako bestelako baldintza guztiak betetzen dituela eta baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz.

VI.- Halaber, Oiartzungo Udaleri baimena ematen diola behar diren artxiboetan kontsulta egiteko, egoki deritzon edozein Organismoren edo Administrazioaren zerrendetan, adierazpen honetako edukia egiazta dezan.

VII.- Atzerriko parte hartzaileen kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegi-tako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki leki-okeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

VII.- Honako hau dela jakinarazpenak eta komunikazioak bidali izanaren oharrak bidaltzeko posta elektronikoen helbidea:

** Kontuan izan, SPKLren 140.1.a).4º artikulua-aren arabera, jakinarazpenak egiteko posta elektronikoen helbideak “gaitua” izan behar du, SPKLren Hamabostgarren Xedapen*

Gehigarrian ezarritakoaren arabera, baldin eta kontratazio-organoak jakinarazpenak bitarteko horren bidez egitea erabaki badu.

EMAIL:	
---------------	-------

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Oiartzungo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimentzen.

☐ **Bai**

☐ **Ez**

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

IZEN-ABIZENAK		SINADURA
N.A.N	DATA	

Oiartzungo Udalak administrazio lizentzien, udal baimenen eta emakiden, eta udal ondasun publikoen kudeaketari lotutako datuak tratatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorrira. Datu pertsonalak gaian eskumena duten organo judizialei eta auzitegiei eta administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, haien trataera mugatu edo horren aurka egin dezake, baita informazioa zabaldu ere, komunikazio bat igorrita, Udalaren helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago www.oiartzun.eus webgunean eskuratzeko.

.....en, 2025ekoan

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”

II. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

**1. LOTEA: OIARTZUNGO ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.2 KAUSUA
MENDIKO 138 UNADAREN ZATI BATEKO EGUR USTIAKETA**

“.....jaunak/andreak, NA.....
zenbakia duenak, helbidea, telefono zk.
..... (fax zk.:; posta elektronikoa:),
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean
(edo.....-r)en izenean, IFK/NA....., hiria
....., helbidea:....., etab.),
**OIARTZUNGO ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.2 KAUSUA MENDIKO 138
UNADAREN ZATI BATEAN ETA 2.063.3 MARTUZENEGI MENDIKO 142, 143
ETA 144 UNADEN ZATITAN DAUDEN EGURREN USTIAKETA ESLEITZEKO
LEHIAKETA (..... lotea)** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak
ezagututa,

ADIERAZTEN DU:

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta lehiaketa arautuko duen gainerako dokumentuak, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Parte hartzaileak kontratua burutzeko indarrean dagoen araudiak eta lehiaketa araupetzen duten baldintza agiriek eskatutako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, baldintza agirietan zehazten diren baldintzak eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzak beteko dituela.

IV.- Esandakoaren baitan, Oiarzungo onura publikoa duen 2.063.2 Kausua mendiko 138 unadaren zati batean dauden egurren ustiaketa eskuratzeko
euroko (BEZa barne) eskaintza egiten duela, honela banakatuta:

- Prezioa (BEZik gabe):euro.
- BEZ aplikagarria (%.....): euro.

Esandako prezioetan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor gastu guztiak, zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira.

.....en, 2025ekoan

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”

II. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

**2. LOTEA: OIARTZUNGO ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.3
MARTUZENEGI MENDIKO 142, 143 ETA 144 UNADEN ZATITAKO
EGURREN USTIAKETA**

“.....jaunak/andreak, NA.....
zenbakia duenak, helbidea, telefono zk.
..... (fax zk.:; posta elektronikoa:),
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean
(edo.....-(r)en izenean, IFK/NA....., hiria
....., helbidea:....., etab.),
**OIARTZUNGO ONURA PUBLIKOA DUEN 2.063.2 KAUSUA MENDIKO 138
UNADAREN ZATI BATEAN ETA 2.063.3 MARTUZENEGI MENDIKO 142, 143
ETA 144 UNADEN ZATITAN DAUDEN EGURREN USTIAKETA ESLEITZEKO
LEHIAKETA (..... lotea)** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak
ezagututa,

ADIERAZTEN DU:

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta lehiaketa arautuko duen gainerako dokumentuak, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Parte hartzaileak kontratua burutzeko indarrean dagoen araudiak eta lehiaketa araupetzen duten baldintza agiriei eskatutako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, baldintza agiritan zehazten diren baldintzak eta espedientearen zehaztutako gainerako aukerako baldintzak beteko dituela.

IV.- Esandakoaren baitan, Oiertzungo onura publikoa duen 2.063.3 Martuzenegi mendiko 142, 143 eta 144 unaden zatietan dauden egurren ustiaketa eskuratzeko
..... **euroko (BEZa barne) eskaintza egiten duela**, honela banakatuta:

- Prezioa (BEZik gabe):euro.
- BEZ aplikagarria (%.....): euro.

Esandako prezioetan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor gastu guztiak, zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira.

.....en, 2025ekoan

Sinadura. PARTE HARTZAILEA.”

